



**HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GASTEIZKO UDALAREN ARTEKOA, ARABAKO MUGIKORTASUN AGINTARITZAK AURRERA JARRAITZEKO.**

**CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, LA DIPUTACION FORAL DE ALAVA, Y EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ PARA LA CONTINUACIÓN DE LA AUTORIDAD DE MOVILIDAD DE ÁLAVA**

Gasteiz, 2026ko \_\_\_\_\_aren \_\_ (a)

En Vitoria-Gasteiz a \_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2026

**BILDU DIRENAK:**

**REUNIDOS:**

Susana García Chueca, Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren sailburua.

Doña Susana García Chueca, consejera de Movilidad Sostenible del Gobierno Vasco.

Jon Nogales Prieto, Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegituren foru diputatua.

Don Jon Nogales Prieto, diputado foral de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava.

Maidier Etxebarria García, Gasteizko Udaleko alkatea.

Doña Maidier Etxebarria García, alcaldesa del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

**HONELA ARITU DIRA**

**INTERVIENEN:**

Susana García Chueca, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean.

Doña Susana García Chueca, en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi

Jon Nogales Prieto, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari modura. Beraren ordezkari-tza dekretu honetan ezartzen da: 153/2023 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa, diputatu nagusiarena.

Don Jon Nogales Prieto, en representación de la Diputación Foral de Álava. Su representación deriva del Decreto Foral 153/2023, de 30 de junio, del Diputado General.

Maidier Etxebarria García, Gasteizko Udalaren ordezkari modura. Beraren ordezkari-tza Udala eratu zen batzarrean ezarri zen, 2023ko ekainaren 17an, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, tokiko araubidearen oinarriak ezartzen dituenak, 21. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Doña Maidier Etxebarria García, en representación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Su representación deriva del Pleno de constitución del Ayuntamiento, que tuvo lugar el 17 de junio de 2023, a la vista de lo establecido en el art. 21 de la ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Alderdi guztiek lankidetzat hitzarmen hau formalizatzeko gaitasun eta eskumen egokiak airtzen dizkiote elkarri. Hartara hauxe

Todas las partes se reconocen capacidad y competencia suficientes para formalizar el presente Convenio de Cooperación y, a tal efecto,





## ADIERAZTEN DUTE:

I.- Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzkoak, bere 10.32 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, besteak beste, “Trenbideen, lehorreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioen, portuen, heliportuen, aireportuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Meteorologia Zerbitzuaren arloko eskumen eskusiboa, Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe. *Garraio-gaietan, zama-kontrataguneak eta terminalak*», *Lege horren 37.2 artikuluan arautzen da horrek ez dituela eraldatuko lurralde historiko bakoitzeko foru araubide espezifikoa izatera edo bakarreko araubideen eskumenen izatera. Horien artean, Arabako Foru Aldundiak errepidezko garraioen gaineko eskumenak dauzka, Herri Lan Ministerioarekin 1950eko martxoaren 9an sinatutako hitzarmenak direla bide (bata errepidezko garraioari buruzkoa da eta bestea lurreko garraioak koordinatzeari buruzkoa).*

Beste alde batetik, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundearen arteko harremani buruzkoak (LHL), honako hau ezartzen du 10. artikuluan; “Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagozkien errepidezko garraio mekanikoen arloko legeria, arau-garapena, goi-ikuskapena, plangintza eta koordinazioa, lurralde historikoen oraingo Arabak bere lurraldean dituen ahalmen eta izatera berarekin, Estatuarekin indarrean dauden hitzarmenen arabera”.

II.– Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko garraioaren arloan, foru lurraldeek historikoki ziztuzten ahalmenen eguneratzea estatutu araubideari lotuta geratu da, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarritik abiatuta (Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 26ko 76/1988 Epaia arabera), eta LHLaren bidez.

## EXPONEN:

I.– Conforme a lo dispuesto en el artículo 10.32 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre otras, la competencia exclusiva en materia de *«ferrocarriles, transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable, puertos, helipuertos, aeropuertos y Servicio Meteorológico del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.20 de la Constitución. Centros de contratación y terminales de carga en materia de transportes»*, regulando en su artículo 37.2 que ello no supondrá alteración de la naturaleza del régimen foral específico o de las competencias de los regímenes privativos de cada Territorio Histórico, entre las que cabe encuadrar las que ostenta la Diputación Foral de Álava en lo relativo a transportes por carretera en virtud de los Convenios suscritos con el Ministerio de Obras Públicas con fecha 9 de marzo de 1950–uno sobre transporte por carretera y el otro sobre coordinación de transportes terrestres–.

Por su parte, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos (LTH), establece en su artículo 10 que *«corresponden a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma las competencias de Legislación, Desarrollo normativo, Alta Inspección, Planificación y Coordinación en materia de Transportes Mecánicos por carretera, ejerciendo los Territorios Históricos las mismas facultades y con el mismo carácter que en el presente ostenta Álava, dentro de su territorio, de acuerdo con los convenios vigentes con el Estado»*.

II.– En materia de transporte intracomunitario del País Vasco, la actualización de las facultades que los territorios forales ostentaban con carácter histórico ha quedado vinculada, partiendo de la Disposición Adicional primera de la Constitución, al régimen estatutario (tal y como declaró la STC 76/1988 de 26 de abril), y a través de la LTH.



Gainera, azaroaren 10eko 23/2021 Foru Arauaren bidez berretsi egin zen Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin Arabako Lurralde Historikoaren errepideko garraioaren arloko araubidea eguneratzeko sinatutako hitzarmena.

Halaber, Arabako Foru Aldundiak eskumenak dauzka bere lurraldearen barruan errepidetik doazen garraio mekanikoen alorrean, honako hauek kontuan izanik: LHLaren 10. artikuluan xedatutakoa; uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoa, Estatuak errepidezko eta kablezko garraioen ahalmenak autonomia erkidegoei eskuordetzeari buruzkoa; martxoaren 5eko 36/1985 Dekretua, errepidezko garraioaren gaian autonomia erkidegoaren erakunde erkideen eta Arabako Lurralde Historikoaren artean eskumenak mugatzen dituen; Diputatu nagusiaren martxoaren 5eko 881/1985 Foru Dekretua, gai berari buruzkoa.

III.- Gasteizko Udalak, Estatuaren eta autonomia erkidegoen legerian ezartzen denari jarraikiz, gai hauen gaineko eskumenak dauzka, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, tokiko araubidearen oinarriak ezartzen dituenak, 25.2.g artikuluan ezarritakoaren arabera: trafikoa, ibilgailuak aparkatzea eta mugitzea, eta hiri garraio kolektiboa. Era berean, 26.1.d artikuluan ezartzen du bidaiarien hiriko garraio kolektiboa nahitaezko gutxienezko zerbitzua dela 50.000 biztanletik gorako udalerrietan. Azkenik, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko tokiko erakundeak, dioenez, udalerrien berezko eskumenen artean pertsonen garraio publikoaren hiri zerbitzuak antolatzea, planeatzea, programatzea, kudeatzea, diziplina ezartzea eta sustatzea daude, edozein garraio bide bidez ere bakoitzaren udal mugartean ematen direnean (17.1.18 artikulua); hori egitea lege horretan xedatutakoari eta aplikatu beharreko legeriari egokitu beharko zaie.

Además, Mediante Norma Foral 23/2021, de 10 de noviembre, se ratificó el convenio de actualización foral en materia de transportes por carretera con el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por el cual se actualiza el régimen del Territorio Histórico de Álava en materia de transportes por carretera.

Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el referido artículo 10 de la LTH y de acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica 5/1987, de 30 de julio, de delegación de facultades del Estado en las Comunidades Autónomas en relación con los transportes por carretera y por cable, así como en virtud del Decreto 36/1985, de 5 de marzo, de delimitación de competencias entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y el Territorio Histórico de Álava en materia de Transportes por Carretera, y del Decreto Foral del Diputado General 881/1985, de 5 de marzo, sobre la misma materia, la Diputación Foral de Álava ostenta competencias en materia de transportes mecánicos por carretera dentro de su territorio.

III.– El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ejerce, en los términos de la legislación del Estado y de las Comunidades Autónomas, competencias en materia de tráfico, estacionamiento de vehículos y movilidad, así como del transporte colectivo urbano, conforme a lo que establece el artículo 25.2.g de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. A su vez, el artículo 26.1.d establece el transporte colectivo urbano de viajeros/as como servicio mínimo obligatorio, para aquellos Municipios con población superior a 50.000 habitantes. Por último, conforme a la Ley 2/2016 de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi, entre las competencias propias de los Municipios se establecen las de ordenación, planificación, programación, gestión, disciplina y promoción de los servicios urbanos de transporte público de personas que, por cualquier modo de transporte, se lleven a cabo íntegramente dentro de sus respectivos términos municipales (artículo 17.1.18), cuyo ejercicio deberá adecuarse al marco de lo dispuesto en dicha ley y en la legislación que sea de aplicación.



IV.- Azaroaren 9ko 11/2023 Legeak, Euskadiko mugikortasun jasangarriari buruzkoak, I. kapituluan zehazten ditu zein diren bere xedea, aplikazio eremua, printzipioak eta helburuak, eta nola banatzen diren eskumenak arlo honetako eskumenak dauzkaten Euskadiko administrazio publikoen artean. Halaber, II. kapituluan, mugikortasun jasangarria sustatzeaz ari dela, oinarriak ezartzen ditu administrazio guztiek mugikortasun jasangarriaren arloko eskumenak erabiltzeko eta politikak finkatzeko. Horrek argi erakusten du zein zeharkakoa den araututako gaia, berariaz aipatzen baitira mugikortasun aktiboa, garraio publikoa, salgaiak trenez garraiatzea, hezkuntza eta irisgarritasuna.

V.- Abenduaren 15eko 5/2003 Legeak, Euskadiko Garraioaren Agintaritzarenak, bere zioen azalpenean adierazten duenez, garraioaren alorrean eskumena daukaten zenbait administrazio daudenez gero, elkarrekin lan egin behar dute, eta garraio sistema integratua ahalbidetzen duten tresna eta mekanismoak sortu behar dira. Hartara, eta garraioaren antolaketa instituzionala harmonizatzeko eta orekatzeko, Euskadiko Garraioaren Agintaritzak sortu zen. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren kontsulta eta koordinazio organo gorena da garraioaren eta haren azpiegituren antolaketarako.

VI.- Halaber, arestian aipatutako abenduaren 15eko 5/2003 Legeak 14. artikuluan ("Garraioaren lurralde-agintaritzak sortzea") ezartzen denez, Euskadiko Garraio Agintaritzak, bere ekimenez edo interesa duten foru eta toki erakundeek eskatuta, garraioaren lurralde agintaritzak sortzea sustatuko du, eskumena duten erakunde eta entitateen artean lankidetzaz hitzarmenak eginez; garraioaren lurralde agintaritzak horiek kasuan kasuko erabide juridikoa izango dute. Lurraldeetako garraio agintaritzak horiek beraiek sortzeko tresnan ezartzen diren izaera, xedea, funtzioak, egitura, antolaketa eta finantzaketa izango dituzte (15. artikulua), eta Euskadiko Garraio Agintaritzak emandako oinarriko irizpideen arabera beteko dituzte beren funtzioak (16. artikulua).

IV.- El capítulo I de la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de movilidad sostenible de Euskadi, determina el objeto, el ámbito de aplicación y los principios y objetivos de la ley, así como la distribución competencial entre las distintas administraciones públicas vascas con competencias en esta materia. Asimismo, su capítulo II, sobre el fomento de la movilidad sostenible, sienta las bases para el ejercicio de las competencias y la definición de políticas en materia de movilidad sostenible para todas las administraciones, hecho que subraya la transversalidad de la materia regulada, recogiendo menciones expresas a la movilidad activa, el transporte público, el transporte de mercancías por ferrocarril, la educación y accesibilidad.

V.- Conforme se declara en la Exposición de Motivos de la Ley 5/2003 de 15 de diciembre de la Autoridad del Transporte de Euskadi, considerando la existencia de diversas administraciones competentes en materia de transportes, ellas deben colaborar entre sí, por lo que deben crearse los instrumentos y mecanismos que posibiliten un sistema integrado de transporte. En su virtud, con el objetivo de armonizar y equilibrar la organización institucional del transporte, se creó la Autoridad del Transporte de Euskadi, como órgano superior consultivo y de coordinación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ordenación del transporte y sus infraestructuras.

VI.- A su vez, conforme se expresa en el artículo 14 de dicha Ley 5/2003 de 15 de diciembre, de rúbrica «creación de las Autoridades Territoriales del Transporte», la Autoridad del Transporte de Euskadi promoverá, a iniciativa propia o a instancia de los entes forales y locales interesados, la creación de diferentes Autoridades Territoriales del Transporte, las cuales adoptarán la figura jurídica correspondiente, mediante la celebración de convenios de colaboración entre las instituciones y entidades competentes. Dichas Autoridades Territoriales del Transporte tendrán la naturaleza, objeto, funciones, estructura, organización y financiación que se establezcan en el instrumento de creación de las mismas (artículo 15) y desarrollarán sus funciones de acuerdo con



VII.- Arabako lurraldeko garraio agintaritza ez da orain arte eratu. Horregatik, parte hartu duten hiru alderdiek 2018ko martxoaren 6an sinatutako aurreko hitzarmenaren bidez onartu zen Arabako Garraio Agintaritza sortzea, lankidetzeta eta elkarlan izaerarekin, garraio publikoaren alorreko antolaketa, plangintza eta betearazpen erabakiak haren barnean eztabaidatzeko, eta erakunde arduradun bakoitzak hartutako erabaki egokiak gauzatzeko, gaiaren gaineko eskumenen banaketa kontuan izanik. AMA sortzeko arrazoia lankidetzarako harreman foro bat eratzekeo premia zen, administrazio eskudun guztien arteko partaidetza eta lankidetzeta mekanismoak artikulatuko zituen. Foro bat izango zen, proposamen eta neurri egokiak hartzeko eta ekimenak egitea sustatzeko, etorkizunean garraioaren lurralde erakunde juridikoa sortzeko. Modu berean, erakundea eratu bitartean, administrazio bakoitzaren eskumenak koordinatzen lagundu ahalko zuen, bai eta bakoitzaren eskumenen barruan, eta garraio publikoaren sistema modu orokor, integratu eta eraginkorrean planeatzen ere, mugikortasun jasangarriaren politikaren oinarritzko printzipioak aintzat hartuta.

Hasieran, hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa zen, sinatu zen egunetik zenbatuta. Gero beste lau urterako luzatu zen, artean partzuergoa eratu gabe zegoelako. Beraz, indarraldia 2026ko martxoaren 5ean amaituko da.

VIII.- Bildutakoek adierazten dute garraioaren alorreko lurraldeko erakunde juridikoa eratzea sustatzeko borondatea dutela. Erakunde horrek partzuergoaren forma juridikoa izan beharko luke, administrazio izaerako zuzenbide publikoko erakundea, Arabako Lurralde Historikoan mugikortasuna planeatzeko eta kudeatzeko funtzioak bere gain hartuz. Hari esleituko zaizkio artikulazio, koordinazio eta lankidetzeta izaerako ahalmen administratiboak eta, aplikatu beharreko hitzarmenarekin eta tresna juridikoarekin bat etorritik, bidezkoa bada, Arabako Lurralde Historikoko garraio zerbitzuen eremuaren barruan,

los criterios básicos emanados de la Autoridad del Transporte de Euskadi (artículo 16).

VII.– La Autoridad Territorial del Transporte de Álava no se ha constituido hasta este momento. Por ello, mediante el anterior convenio suscrito por las tres partes intervinientes el 6 de marzo de 2018, se aprobó la creación de la Autoridad de Movilidad de Álava (AMA), con naturaleza cooperativa y colaborativa, a fin de que las decisiones de ordenación, planificación y ejecución en materia de transporte público fueran debatidas en su seno y llevadas a cabo las decisiones oportunas adoptadas por cada institución responsable, conforme a la distribución de competencias en la materia. La creación de la AMA venía justificada por la necesidad de constitución de un foro relacional de cooperación que articulara los mecanismos de participación y cooperación entre todas las administraciones competentes. Un foro que adoptase las iniciativas y promoviese la adopción de propuestas y medidas correspondientes para promover la futura constitución de la entidad jurídica territorial del transporte mediante la figura del consorcio y, entretanto se constituya el mismo, pudiera coadyuvar a la coordinación de las competencias de las diferentes administraciones, con respeto a sus títulos competenciales y a la planificación global, integrada y eficiente del sistema de transporte público, atendiendo a los principios básicos de la política de movilidad sostenible.

El citado convenio, de una vigencia inicial de cuatro años desde su suscripción, fue prorrogado asimismo por otros cuatro años dado que aún no se había constituido el citado consorcio, por lo que su vigencia finaliza el próximo 5 de marzo de 2026.

VIII.– Los comparecientes expresan asimismo su voluntad de promover la constitución de la entidad jurídica territorial del transporte cuya configuración debiera asumir la forma jurídica de consorcio, entidad de derecho público de naturaleza administrativa que asuma las funciones de planificación y gestión de la movilidad en el Territorio Histórico de Álava, atribuyéndole las potestades administrativas de articulación, coordinación y cooperación y, conforme al convenio e instrumento jurídico que resulte de aplicación, pueda, en su caso, gestionar, en el ámbito de los servicios de transporte del Territorio



hura osatzen duten erakundeen eskumeneko jarduerak kudeatu ahalko ditu.

IX.– Aurrekoa kontuan edukita, bildutakoek uste dute beharrezkoa dela aurrera jarraitzea Arabako Mugikortasun Agintaritzaren (AMA) izeneko lankidetzarako harremanen foroak, administrazio eskudun guztiek parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko mekanismoak artikulatzen jarraitzeko.

Hori dela bide, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren itzalpean eta, araudi horren baitan, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 47-53, 143., 144. eta 145. artikuluetan eta maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak, Euskal Sektore Publikoaren 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, bildu diren administrazioek administrazio arteko hitzarmen hau formalizatzen eta sinatzen dute.

## KLAUSULAK

### Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da aurrera jarraitzea alderdien arteko lankidetzarako Arabako Mugikortasun Agintaritzaren izeneko organoak, alderdiok osatutako egitura hori arduratu dadin Arabako Lurralde Historikoko lurreko garraioaren arloko administrazioen arteko lankidetzaz eta politika publikoak bateratzeaz, eta garraioaren arloko eskumenak dauzkaten erakunde eta entitate guztiei beren ahalmen publikoak koordinatuta erabiltzen laguntzeaz, genero berdintasunaren ikuspegiarekin.

Lankidetzaren organo honek ez dauka nortasun juridikorik. Arabako Foru Aldundian garraioaren alorrean eskumena daukan sailari atxikiko zaio.

Helburua da sustatzea organo hori partzuergoaren forma juridikoarekin eratzea, administrazio izaerako zuzenbide publikoko erakunde gisa. Eratze hori hitzarmen edo tresna juridiko aplikagarri baten bidez gauzatuko da.

Histórico de Álava, las actividades de competencia de las entidades que la integren.

IX.– Teniendo en cuenta lo anterior, los comparecientes entienden necesaria la continuidad del foro relacional de cooperación en que consiste la Autoridad de Movilidad de Álava (AMA), para seguir articulando los mecanismos de participación y cooperación entre todas las administraciones competentes.

En su virtud, al amparo de lo establecido en la normativa vigente y, entre ella, conforme a los artículos 47 a 53, 143, 144 y 145 de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (LRJSP) y los artículos 32 y 33 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, las Administraciones comparecientes acuerdan la formalización del presente convenio interadministrativo, que suscriben conforme a las siguientes

## CLÁUSULAS

### Primera.- Objeto del Convenio

El presente Convenio tiene por objeto la continuidad del órgano de cooperación entre las partes intervinientes, que se denomina Autoridad de Movilidad de Álava (AMA), con la finalidad de seguir disponiendo de una estructura integrada por las partes que se ocupe de la cooperación interadministrativa y puesta en común de las políticas públicas en materia de transporte terrestre en el Territorio Histórico de Álava, promoviendo y facilitando el ejercicio coordinado de las potestades públicas por todas las instituciones y entidades con competencias en materia de transportes, bajo el prisma de la igualdad de género.

Dicho órgano de cooperación carece de personalidad jurídica y estará adscrito al Departamento competente en materia de transportes de la Diputación Foral de Álava

Su objetivo consiste en promover la constitución de este órgano bajo la forma jurídica de consorcio, entidad de derecho público de naturaleza administrativa, y que se materializará mediante la



celebración de un convenio o instrumento jurídico que le resulte de aplicación.

### Bigarrena.- Helburuak

Arabako Mugikortasun Agintaritzak bere lurralde eremuan garraio agintaritzak gisa sendotzen da, Euskadiko Garraio Agintaritzaren abenduaren 15eko 5/2003 Legeak arautzen duenari lotuta, eta hori denez gero, hauexek dira beraren xedea eta helburuak:

- a) Laguntzea bidaiarien garraioa antolatzeko politikak zehazten, bidaiarien garraioen politika bateratua koordinatzen, bidaiarien garraioaren modalitate guztiak planifikatzen eta bidaiariak garraio politikak lurralde orekari eta, oro har, garapen jasangarriari egokitzen, eta bidaiarien garraioaren arloan Europar Batasunak ezartzen dituen politikak gauzatzen eta betearazten.
- b) Bidaiarien garraioaren arloko eskumenak dauzkaten erakunde guztiak ahalmen publikoak koordinaturik erabiltzea sustatzea eta erraztea, administrazioen arteko lankidetzak bere gain hartzea, eta Arabako Lurralde Historikoaren eremu geografikoan biltzen diren interesak bateratzea, arlo honetako politikei dagokienez.
- c) Zerbitzuak, sareak eta tarifak koordinatzea sustatzea eta bultzatzea, eta erabiltzaileei eskaintza hobea aurkeztea, bidaiarien garraio kolektiboaren erabilera sustatzeko eta bultzatzeko.
- d) Bidaiarien garraiorako sare bakar eta integrala sustatzea.
- e) Garraio arrazionalago eta eraginkorragoa lortzea sustatzea. Horretarako erabat txertatuko dira garapen jasangarriaren alderdi sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak.

### Segunda.- Finalidades

La Autoridad de Movilidad de Álava se consolida en su ámbito territorial como Autoridad del Transporte regulada por la Ley 5/2003, de 15 de diciembre, de la Autoridad del Transporte de Euskadi y, en cuanto tal, su objeto y sus finalidades son los siguientes:

- a) Coadyuvar a la definición de las políticas de ordenación del transporte de personas viajeras, a la coordinación de la política común de transportes de personas viajeras, a la planificación de las distintas modalidades del transporte de personas viajeras y a ajustar las políticas al equilibrio territorial, y en general al desarrollo sostenible, así como implementar y ejecutar las políticas comunitarias en dicha materia.
- b) Promover y facilitar el ejercicio coordinado de las potestades públicas por todas las instituciones con competencias en materia de transportes de personas viajeras, asumir la cooperación interadministrativa y conciliar los diversos intereses que confluyen en el ámbito geográfico del Territorio Histórico de Álava en relación con las políticas en esta materia.
- c) Fomentar e impulsar la coordinación de los servicios, redes y tarifas, y la puesta a disposición de la persona usuaria de una mejor oferta, con el fin último de potenciar y estimular el uso del transporte colectivo de personas viajeras.
- d) Promover la red de transportes de personas viajeras única e integral.
- e) Impulsar la consecución de un transporte más racional y eficiente mediante la integración plena de los aspectos sociales, medioambientales y económicos del desarrollo sostenible.



- f) Baliabide publikoak eta pribatuak optimizatzea, bidaiariak garraiatzeko modu guztien elkarreragingarritasuna bultzatzeko eta Europako garraio sisteman txertatzeko.

- f) Optimizar los recursos públicos y privados para impulsar la interoperabilidad de los diferentes modos de transportes de personas viajeras y su inserción en el sistema europeo de transporte.

#### Hirugarrena.- Egitekoak

Euskadiko Garraioaren Agintaritzaren oinarritzko irizpideekin bat etorritik, lankidetzaren organoak bere xedea eta helburuak betetzeko behar diren edo komenigarriak diren lan guztiak egin ahalko ditu, betiere administrazio horietako bakoitzak garraioaren arloan dauzkan eskumenak errespetatuz. Besteak beste, honako egiteko hauek edukiko ditu:

1. Arabako Lurralde Historikoan garraio politikak bateratzea eta mugikortasun jasangarriko politika bat garatzea, garraio sistema on, integral, seguru, jasangarri eta irisgarria edukitzeko.
2. Proposamenak aztertzea, eztabaidatzea eta onartzea, besteak beste, gai hauei buruz:
  - a. Garraio publikoko zerbitzuak eta azpiegiturak planifikatzea eta koordinatzea.
  - b. Garraio kolektiboko operadoreekiko harremanak.
  - c. Administrazioek sistema finantzatzea.
  - d. Tarifak antolatzea. Tarifak bateratzeko sistema eta txartel bakarra ezartzea.
  - e. Komunikazioa.
  - f. Mugikortasun jasangarriaren lurralde planak.
  - g. Aholkularitzak eta txostenak.
3. Aldian-aldian garraioaren politika publikoa, haren inpaktua eta beraren tresnak eta programak ebaluatzea, eta hitzarmen honi eragiten dioten

#### Tercera.- Funciones

Conforme a los criterios básicos emanados de la Autoridad del Transporte de Euskadi, el órgano de cooperación seguirá desarrollando todas las funciones que sean necesarias o convenientes para el cumplimiento de su objetivo y de sus finalidades, siempre con respeto a la respectiva titularidad competencial en materia de transporte de las referidas Administraciones. Y, entre otras, mantendrá las siguientes funciones:

1. La puesta en común de las políticas del transporte en el Territorio Histórico de Álava y el desarrollo de una política de movilidad sostenible dirigida a contar con un sistema integral de transportes de calidad, seguro, sostenible y accesible.
2. Deliberar, debatir y adoptar propuestas, entre otras, sobre las siguientes materias:
  - a. Planificación y coordinación de servicios e infraestructuras de transporte público.
  - b. Relaciones con los operadores de transporte colectivo.
  - c. Financiación del sistema por parte de las administraciones.
  - d. Ordenación de las tarifas. Implantación del Sistema de Integración Tarifaria y del Billeto Único.
  - e. Comunicación.
  - f. Planes Territoriales de Movilidad Sostenible.
  - g. Asesoramientos e Informes.
3. Realizar la evaluación periódica de la política pública del transporte y su impacto así como de sus instrumentos y programas, debiendo velar por el



berdintasunari buruzko xedapenak betearaztea.

4. Garraioaren arloko lurraldeko erakunde juridikoa eratzeko neurriez eztabaidatzea eta haiek sustatzea.

#### Laugarrena.- Artikulazioa eta funtzionamendua

Lankidetzaren organo honetan parte hartzen duten administrazio publikoek ziurtatuko dute beren arteko harremanak elkar informatzeko, lankidetzan aritzeko, koordinatzeko eta elkar errespetatzeko betebeharren arabera direla.

Lankidetzaren organoa urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektorerik publikoaren araubide juridikoenak, 15-18. artikuluetan xedatutakoaren arabera eraenduko da.

Organoren funtzionamendua arauak ezarri edo osatu ahalko dira.

##### a) Organoren integrazioa eta osatura

Lankidetzaren organoan hitzarmen hau sinatzen duten administrazio guzti-guztietako ordezkariak daude, banaketa honen arabera:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean garraioen alorrean eskumena daukan sailak izendatutako 3 ordezkari.
- Arabako Foru Aldundian garraioen alorrean eskumena daukan sailak izendatutako 3 ordezkari.
- Gasteizko Udalak izendatutako 3 ordezkari.

Hitzarmeneko administrazioek ordezkari iraunkor bat izendatuko dute lankidetzaren organoan duten ordezkari bakoitzarentzat. Horiek titularren ordezkari jardungo dute haiek ez daudenean, gaixorik daudenean edo batzarretara joan ezin dutenean, eta haien eskubide eta betebeharrak edukiko dituzte.

cumplimiento de las disposiciones de igualdad que afectan a este convenio.

4. Debatir y promover la adopción de medidas correspondientes hacia la constitución de la entidad jurídica territorial del transporte.

#### Cuarta.- Articulación y funcionamiento

Las administraciones públicas que participan en el presente órgano de cooperación ajustarán sus relaciones recíprocas a los deberes de información mutua, colaboración, coordinación y respeto entre ellas.

El órgano de cooperación se regirá por lo dispuesto en los artículos 15 a 18 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (LRJSP).

Se podrán establecer o completar las normas de funcionamiento de este órgano.

##### a) Integración y composición del órgano

El órgano de cooperación está integrado por representantes de todas y cada una de las administraciones que suscriben este convenio, conforme a la siguiente distribución:

- 3 representantes designados por el Departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia de transportes.
- 3 representantes designados por el Departamento de la Diputación Foral de Álava competente en materia de transportes
- 3 representantes designados por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Las administraciones conveniadas designarán con carácter permanente una persona suplente para cada uno de sus representantes en el órgano de cooperación, quienes sustituirán a los/as representantes titulares en caso de ausencia, enfermedad o imposibilidad de asistir a la sesión, con los mismos derechos y obligaciones que los/las titulares.



b) Lehendakaria

Lankidetzaren organoak lehendakari izendatuko du kideetako bat. Lehendakariak organoaren barne funtzionamendua zuzenduko du.

Lehendakariaren agintaldia urtebetekoa izango da. Lehendakaritzan txandaka ariko dira Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarena eta Gasteizko Udalarena, ordena horretan.

c) Idazkaria

Organoaren idazkaria lehendakariak izendatuko du. Idazkariak hitz egin ahal izango du, baina botoa eman ez, eta organoaren jardunaz eta deialdiak egiteaz arduratuko da.

d) Bilkurak

Lankidetzaren organoaren bilkurak non eta noiz egingo diren lehendakariaren deialdietan zehaztuko da.

Bilkurak lau hilean behin egingo dira, oro har. Hala ere, alderdien bi herenek eskatzen badute edo lehendakariak erabakitzen badu, aparteko bilkurak deitu ahalko dira.

Lankidetzaren organoaren bilkurak ez dira jendaurrean egingo. Nolanahi ere, lehendakariak lankidetzaren organoak ez diren pertsonen eskatu ahal izango die bilkuretara joateko, beharrezkoa denean aztertu behar diren gaiak direla eta.

e) Deialdiak

Lehendakariak egingo ditu lankidetzaren organoaren bilkuretarako deialdiak, ohiko zein ezohiko bilkuretarakoak. Horretarako, komunikazio bana bidaliko

b) Presidencia

El órgano de cooperación designará de entre sus miembros a una persona que ejerza su presidencia, quien dirigirá el funcionamiento interno del órgano.

Los mandatos de la presidencia tendrán una duración anual con carácter rotativo entre los designados por la Diputación Foral de Álava, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, siendo éste el orden de rotación.

c) Secretaría

La Secretaría del órgano se desempeñará por una persona vocal designada por la Presidencia, la cual dispondrá de voz pero no de voto y se encargará del funcionamiento del órgano y de trasladar las convocatorias oportunas.

d) Sesiones

Las sesiones del órgano de cooperación se celebrarán en el lugar y fecha que indique la presidencia para cada una de las convocatorias.

Las sesiones se celebrarán, con carácter ordinario con una periodicidad cuatrimestral. Ello no obstante, a requerimiento de dos tercios de las partes o por decisión de la presidencia, se podrán convocar sesiones de carácter extraordinario.

Las sesiones del órgano de cooperación no tendrán carácter público, sin perjuicio de la facultad de la presidencia de solicitar la asistencia a las sesiones de personas ajenas al órgano de cooperación cuando la naturaleza de los asuntos a tratar requiera su asistencia.

e) Convocatorias

Corresponde a la presidencia convocar las sesiones del órgano de cooperación, tanto cuando tengan el carácter de ordinarias como cuando sean extraordinarias, mediante remisión de una comunicación individual por medios electrónicos a cada



die lankidetzaren organoko kide guztiei baliabide elektronikoen bidez.

Ohiko bilkuretarako deialdiak gutxienez zortzi egun baliodun lehenago egin beharko dira; ezohiko bilkuretarako deialdiak, berriz, bost egun baliodun lehenago egin beharko dira.

Ohiko zein ezohiko bilkuretarako deialdiekin batera aztertuko diren gaien zerrenda bidaliko da. Gainera, deialdian zehaztuko da bilkura noiz egingo den (eguna eta ordua) eta non egingo den.

f) Erabakiak hartzea

Erabakiak aho batez hartu beharko dituzte organoan ordezkatuta dauden eta erabaki bakoitzak eragiten dion gaian eskumena duten alde guztiek.

g) Aktak

Lankidetzaren organoak bilkura bakoitzaren akta egingo du. Bertan honako hauek agertuko dira: bilkura non egin noiz den eta zer ordutan hasi den; deialdiaren testu osoa; bilkuran izan diren pertsonen izen-abizenak (titularrak edo ordezkoak diren zehaztuta); eztabaidatutako gaiak eta egindako adierazpenak, interesdunak aktan agertzea nahi badu; hartutako erabakiak, eta eman diren botoak.

Lankidetzaren organoaren idazkariak idatzi beharko ditu aktak.

Bosgarrena.- Ponentzia eta batzorde teknikoak

Organoak ponentzia edo batzorde teknikoak eratu ahaliko ditu. Sortzeko helburuak eta xedeak betetakoan desegingo dira. Ponentzia edo batzorde tekniko horietan alderdi bakoitzaren ordezkarik bat ariko da, bai eta, gainera, lankidetzaren organoak hartara izendatzen dituen pertsonak ere. Organoak, halaber, ponentzia edo batzorde

uno de los miembros que integran el órgano de cooperación.

Las sesiones ordinarias deberán ser convocadas con una antelación mínima de ocho días hábiles respecto a su fecha de celebración; las extraordinarias se convocarán con una antelación de cinco días hábiles respecto a su fecha de celebración.

Las convocatorias correspondientes a sesiones ordinarias y extraordinarias irán acompañadas del orden del día de los asuntos a tratar, indicarán la fecha y hora para su celebración, indicando también el lugar de celebración.

f) Adopción de acuerdos

Los acuerdos deberán ser adoptados por unanimidad de todas las partes representadas en el órgano a cuyas materias de competencia afecten o incidan dichos acuerdos.

g) Actas

De cada sesión del órgano de cooperación, se levantará la correspondiente acta, en la que se consignarán: el lugar, día y hora en que comienza la sesión; el texto íntegro de la convocatoria; el nombre y apellidos de todos los asistentes, indicando si lo hacen en calidad de titulares o suplentes; los asuntos sometidos a deliberación y las manifestaciones emitidas, cuando la entidad interesada requiera su constancia en acta; los acuerdos adoptados y el sentido de las votaciones.

Corresponde a la secretaría del órgano de cooperación la redacción de las actas.

Quinta.- Ponencias y Comisiones Técnicas

El órgano podrá adoptar la decisión de constituir las ponencias o comisiones técnicas con los objetivos y finalidades a cuyo efecto se resuelva su creación. Dichas ponencias o comisiones técnicas estarán integradas por un representante de cada una de las partes, así como por las personas que sean designadas, a tal efecto, por el órgano de



tekniko bakoitzeko burua eta idazkaria izendatuko ditu, eta proposamenak eta lanak noizko amaitu behar dituen esango du.

#### Seigarrena.- Operadoreen parte hartzea

Lehendakariak, egoki baderitzo, eta aurretik organoak erabakita, bilkuretan parte hartzeko eskatu ahal izango die beharrezkotzat jotzen dituen enpresa erakunde publikoei eta garraio operadoreei. Ahotsa edukiko dute, baina botorik ez.

#### Zazpigarrena.- Hitzarmena garatzeko finantzabideak

Lankidetzaren organoak ez dauka aurrekonturik; beraz, hitzarmenak ez die sortuko sinatzaileei betebeharrak ekonomikorik, ez eta finantza edo gastu izaerako konpromisorik ere.

Hitzarmen hau betetzeko, lankidetzaren organoak erabakiak hartu ahal izango ditu hirugarren klausulan bere gain hartutako egitekoei buruzko proiektuak eta jarduketak egitea eta garatzea proposatzeko.

Hala gertatzen denean, proiektu eta jarduketa horien dimentsioa eta irismena, eta alderdiek horiek betetzeko hartu behar dituzten denetarikon konpromisoak kontuan hartuta, baliteke berriazko hitzarmena sinatu behar izatea; hitzarmen horretan zer lortu nahi den zehaztuko da, bai eta zenbat gastu eragingo dituen eta alderdi bakoitzak zenbat diru ipini beharko duen ere.

#### Zortzigarrena.- Hitzarmena betetzearen jarraipena, zaintza eta kontrola

Hitzarmen honen jarraipena egiteko, hura zaintzeko eta nola gauzatu den kontrolatzeko, Arabako Mugikortasun Agintaritzaren barruan memoria bat egin ahal izango da, hitzarmen honen bidez urterako agindutako eginkizunak zentzuzko moduan gauzatu diren argitzeko.

cooperación. El órgano decidirá, asimismo, el nombramiento de presidencia y secretaria de cada una de dichas ponencias o comisiones técnicas y su plazo de vigencia hasta la finalización de sus propuestas y trabajos.

#### Sexta.- Participación de operadores

La presidencia, cuando lo considere procedente y previo acuerdo del órgano, podrá interesar la asistencia y participación de las entidades públicas empresariales y de los operadores de transporte que crea conveniente en las sesiones correspondientes, quienes asistirán con voz, pero sin voto.

#### Séptima.- Financiación en desarrollo del convenio

El órgano de cooperación no cuenta con un presupuesto propio por lo que el presente convenio no supone obligación económica ni compromiso financiero o de gasto alguno para las partes.

El órgano de cooperación podrá, en cumplimiento del presente convenio, adoptar acuerdos para proponer la elaboración y desarrollo de proyectos y actuaciones sobre las funciones asumidas en la cláusula tercera.

En su caso, la dimensión y alcance de dichos proyectos y actuaciones, así como los compromisos de toda índole que deban asumir las partes para su ejecución, podrá requerir la suscripción de un convenio específico con los efectos que se determinen en la misma, incluidos sus gastos de ejecución, y distribución de las aportaciones económicas correspondientes a cada parte.

#### Octava.- Seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio

A efectos del seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del presente convenio, en el seno de la Autoridad de Movilidad de Álava, entre las partes integrantes se podrá realizar una memoria anual del grado de ejecución de las funciones encomendadas en virtud del presente convenio.



### Bederatzigarrena.- Hitzarmena aldatzea

Hitzarmen hau alderdi sinatzaile guztiak aho batez hartutako erabakiaren bidez aldatu ahal izango da. Erabakia, bere edukiaren arabera, hitzarmenaren adenda batean txertatu ahal izango da, behar diren aldaketekin.

### Hamargarrena.- Hitzarmenaren indarraldia eta azkentzea

Alderdi bakoitzak sustatu beharreko prozedura izapide guztiak behar bezala egin ondoren hitzarmenaren behin betiko onespena bidezko aldizkari ofizialetan argitaratuko da. Hitzarmena alderdiek sinatzen duten egunean sartuko da indarrean, eta lau urteko indarraldia edukiko du.

Hala ere, aldi hori igaro baino lehen Arabako Mugikortasun Agintaritza partzuergo izaerako erakunde bihurtzen bada, hitzarmen hau alderdi sinatzaile guztiak aho batez hartutako erabakiaren bidez azkendu ahal izango da.

Lau urteko indarraldiaren barruan Arabako Mugikortasun Agintaritza partzuergo modura eratzten ez bada, alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute indarraldiaren luzapena izapidetzeko indarraldia amaitu baino behar beste lehenago, aurrean aipatutako legearen 49.h).2 artikuluan ezartzen denarekin bat etorri; horretarako, baimena emateko erabili den prozedura bera aplikatuko dute.

Hitzarmena indarraldia igarotakoan azkenduko da. Modu berean, alderdietako batek ez baditu betetzen hartutako konpromisoak, beste alderdiek ahalmena izango dute hitzarmena azkendu dadila eskatzeko. Azkentzean, alderdiek zehaztuko dute nola amaitu behar diren egiten ari diren jarduketak.

### Novena.- Modificación del convenio

El presente convenio podrá ser objeto de modificación mediante acuerdo adoptado por unanimidad entre todas las partes firmantes, que, en función de la entidad de su contenido, podrá plasmarse en la correspondiente Adenda al mismo convenio, incorporando las variaciones correspondientes.

### Décima.- Vigencia y resolución del convenio

Una vez cumplida la debida tramitación procedimental que cada parte deba impulsar hasta la definitiva aprobación del mismo, que se publicará en sus correspondientes Boletines Oficiales, el convenio entrará en vigor el mismo día de la suscripción del mismo por las partes, con una duración de cuatro años.

No obstante, si con anterioridad al transcurso de ese plazo se produce la formalización en entidad consorcial de la Autoridad de Movilidad de Álava, el presente convenio podrá quedar resuelto mediante acuerdo unánime de todas las partes firmantes singularmente.

Si transcurrido el plazo de cuatro años la Autoridad de Movilidad de Álava no se hubiera constituido en consorcio, las partes firmantes se comprometen a tramitar, con suficiente antelación al fin de dicha vigencia, su necesaria prórroga, de conformidad con lo previsto en el apartado 2.º del artículo 49.h) de dicha Ley, observándose para ello el mismo procedimiento seguido para su autorización.

La extinción del convenio se verificará tras el transcurso del plazo de su vigencia. A su vez, el incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a las otras para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización de las actividades que se hallen en ejecución.



### Hamaikagarrena.- Berdintasuna

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, alderdi sinatzaileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko konpromisoa hartzen dute lankidetzaz hitzarmen hau behar bezala betetzeko egin behar diren jarduketak guztietan.

Hain zuzen ere, hitzarmen honi bi xedapen hauek ezartzen dena aplikatuko zaio: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarako Gabeko Bizitzetarako Legearen testu batagina onartzen duena; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa.

### Hamabigarrena.- Irisgarritasuna

Alderdiek konpromisoa hartzen dute irisgarritasunari buruzko araudia betetzeko, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 8. artikuluan (“Lege honetan araututako zerbitzuak edo jarduerak erabiltzen dituztenek, besteak beste, ibilgailuak segurtasun-baldintzetan eta, hala dagokionean, irisgarritasun-baldintza egokietan erabiltzeko eskubidea izango dute...”) eta Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko azaroaren 9ko 11/2023 Legean ezarritakoa. Azken horren arabera irisgarritasun unibertsala garraio-sistema integratu, eraginkor, seguru eta inklusiboa eskatzen duen eskubide indibidual eta kolektibotzat hartu behar da (3.1.a artikulua).

### Hamahirugarrena.- Izaera eta jurisdikzioa

Hitzarmen hau administratiboa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. kapituluan ezartzen denaren arabera.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak edukiko du eskumena hitzarmen honen ondorioz gertatzen diren auzi guztiez arduratzeko eta ebazteko.

### Undécima.- Igualdad

De acuerdo con la normativa vigente en materia de igualdad de mujeres y hombres, las partes firmantes se comprometen a promover la igualdad de mujeres y hombres en todas aquellas actuaciones que se precisen desarrollar para el adecuado cumplimiento del presente convenio de colaboración.

En concreto, este convenio se rige por lo establecido en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, y por lo establecido en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

### Duodécima.- Accesibilidad

Las partes se comprometen a cumplir con la normativa de accesibilidad y en particular, con lo establecido al respecto por los artículos 8 de la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Personas Viajeras por carretera del País Vasco (“quienes utilicen los servicios o actividades regulados en la presente ley tendrán, entre otros, el derecho a utilizar los vehículos en condiciones de seguridad, y, en su caso, en las debidas condiciones de accesibilidad ...”), así como por la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de movilidad sostenible de Euskadi, la cual declara la accesibilidad universal como un derecho individual y colectivo que requiere un sistema de transporte integrado, eficiente, seguro e inclusivo (artículo 3.1.a).

### Decimotercera.- Naturaleza y jurisdicción

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, de conformidad con lo establecido en el capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

El orden jurisdiccional contencioso administrativo será el competente para conocer y resolver las cuestiones litigiosas que se deriven del presente convenio.



Eta ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmenaren hiru ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad, las partes firman el presente convenio por triplicado ejemplar en el lugar y fecha indicados en su encabezamiento.

**Susana García Chueca**  
**Consejera de Movilidad Sostenible del Gobierno Vasco**  
**Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren sailburua**

**Jon Nogales Prieto**  
**Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegituren Diputatua**  
**Diputado de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la**  
**Diputación Foral de Álava**

**Maidier Etxebarria García**  
**Gasteizko Udaleko alkate-udalburua**  
**Alcaldesa Presidenta del Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz**